



## GAZTEENTZAKO MATERIALA





Ikasturte berri honetarako, amets egiten duen komunitate bat eraikitzea da gure proposamena, eta bat egin nahi dugu Frantzisko aita santuak proposatzen digun irrikarekin eta itxaropenarekin, gizaki guztion artean giza familia handi bat sortzeko, anaitasunaren munduko desira birsortzeko. Amets egiteak etorkizunerako ateak, aukerak eta eraldaketa-bideak irekitzen dizkigu; amets egiteak aukera ematen digu pertsona guztientzako bizitza desberdin eta hobe baten itxaropena sortzeko, irrikatzeko eta proiektatzeko, batez ere horizontez husturiko itxaropena bizi dutenentzat. Ikastaro honetan argi izateko gonbita egiten dugu: izan gaitezen itxaropen-ikur, etxegabetasunaren, langabeziaren, bakardadearen edo gizarte-harremanen gabeziaren aurrean. Komunitate izan behar dugu, eta argi egin behar diogu pertsona guztien duintasun-bideari. Gogoan izan Erromatarrei idatzitako gutuneko hitzak (12, 12) «Bizi zaitezte itxaropenean alai».

Frantzisko aita santuak bereziki gonbidatzen ditu gazteak «amets- eta itxaropen-artisau» izatera (Ipar Mazedoniako gazteen topaketa. 2019ko maiatza) eta elkarrekin amets egiteko eskatzen du. Besteekin, inoiz ez besteen aurka. Ametsak elkarrekin eraikitzen dira. Inork ezin du jardun bizitzako egoeren kontra bakarrik. Ezin dira bizi fedea eta ametsak komunitaterik gabe. Gainera, «Ametsei esker, bizirik eusten diogu uste sendo bati: beste mundu bat posible dela eta gure lanarekin, konpromisoarekin eta ekintzarekin parte hartzera gonbidatuta gaudela».

## **I. JARDUERA**


### Helburua:

- Bizi diren munduaren aurrean kritika-gaitasuna suspertzea, eta espazio bat irekitzea, mundu hau nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen hitz egin dezaten.

### Dinamika:

Bideratzaileak lauzpabost pertsonako taldeak osatuko ditu, eta adreilu itxurako 10 paper laukizuzen gorri emango dizkio talde bakoitzari (Eranskina). Adreilu bakoitzaren gainean, idatzi beharko dute zer ez zaien gustatzen munduan eta gure gizartean gertatzen ari denetik, haienez ondo funtzionatzen ez duen edo bidegabea den guztia, merezi ez duten guztia, ezabatu nahi duten guztia (errealitateak, jarrerak, portaerak, egoerak, eta abar). Hau da, idazten duten horretan jaso beharko da zerk galarazten duen mundu gizatiarrago, humanitarioago, humanizatzaileago batean bizitzea, zerk eragozten duen justizia,

anaitasuna eta elkartasuna nagusi diren mundu batean bizitzea. Ideiak guztien aurrean lantzean, talde bakoitzeko ordezkari bat aterako da eta horman itsatsiko ditu adreiluak, edo, bestela, paper jarraitu handi batean, zer idatzi duten azalduz.



Horma osatuta dagoenean, bideratzaileak gogoeta hori azalduko du: Harresi honetan, gustatzen ez zaizuen eta merezi ez duzuen guztia ipini duzue. Adreilu hauetan, ez ditugu ikusten alderdi negatiboak bakarrik, baizik eta zeharka esaten ari zarete nolakoa den amesten duzuen mundu ideala. Nahikoa da adreilu bakoitzean idatzi duzuenaren kontrakoa esatea. Beraz, orain talde bakoitzak manifestu bat idatziko du, amesten duzuen mundu berria nolakoa den adierazteko. Honelaxe hasiko da zuen manifestua: «Gure taldeak mundu jakin batekin egiten du amets...» (eta adreilu bakoitzean jarri duzuenaren kontrakoa aipatzen ari zarete; goseak bazaudete, hemen esango duzue «inork ez dezala pasatu goserik»).

Gogoeta:

Mateo 5, 1- 11 irakurriko dogu

*"Jentetza ikusirik, Jesusek mendira igon eban. Jesarri eta ikasleak inguratu jakozan. Orduan, honan hasi jaken irakasten:*

*Zorionekoak gogoz behartsu diranak, ze eurena da Jainkoaren erreinua.*

*Zorionekoak negarrez dagozanak, ze eurak ditu Jainkoak kontsolatuko.*

*Zorionekoak apalak, ze eurek izango dabe agindutako lurra ondare.*

*Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri diranak, ze eurak ditu Jainkoak aseko.*

*Zorionekoak errukitsuak, ze eurak ditu Jainkoak erruki izango.*

*Zorionekoak bihotz-garbi diranak, ze eurek ikusiko dabe Jainkoa.*

*Zorionekoak bakegileak, ze Jainkoaren seme-alaba izango dira.*



*Zorionekoak zuzentasunagaitik eraso jasaten dabenak, ze euren dabe Jainkoaren erreinua.*

*Zorionekoak zuek, Nigaitik madarikatuko zaitueenean, erasoka eta guzurrez txarto-esaka erabiliko zaitueenean”*

Gizadian Erreinua eraikitzea, maitasun, zuzentasun, egia eta bake dan Erreinua eraikitzea da Jesusen ametsa, Zoriontasunek adierazo deuskuenez.

- Amestu eta agirian jarri dogun mundua, zertan da Jainkoaren Erreinuaren antzeko?

Otoitza:

Dinamikarekin partekatu duguna gogoratu dugu eta gure otoitzera eramango dugu.

Jesus, ameslari handia Jesus.

Ameslari handia zara, benetako ameslaria,  
oinak lurrean dituala, eskuak lokatzetan dituala,  
lan egiten dauan bitartean amets egiten dauana.

Danok dogu lekua zure ametsean;

Zuk ez dozu bereizketarik egiten,

kontatu ezin dan beste aulki dagoan afarira gonbidatzen gaituzu,  
platerkada bana jateko izango dogun lekura.

Zure ametsa, Jesus, taupadaka, sutan dagoan,  
egarria asetzen dauan amets bizia da.

Mundua bake eta maitasunezko adreiluez eraikitzeko  
gure eskuak ezinbesteko dituan ametsa.

Jesus, eskerrik asko leiho eta beso irekien,  
alkartutako eskuen, erne dagozan bihotzen,

asetutako gosearen, argiaren ametsa gugaz konpartitzeagaitik.

Zure ametsa eraiki gura dot, Jesus, neure bihurtu.

Bidean amets egin gura dot,  
esnatu eta ez lotan jarraitu.

AMEN

Javier Fonseca

## 2. JARDUERA

### Helburuak:

- Kaltetutako gazteen errealiadea ezagutu eta horrek euren garapenean dauan eragina ikusi
- Ahulezian dagozan pertsonen lagunduz gizarte eraldaketarako dogun gaitasunaz jabetu

### Dinamika:

Auzobizi egitasmoari buruzko bideoa ikusi:

[https://www.youtube.com/watch?v=YCp7dm7\\_tQM](https://www.youtube.com/watch?v=YCp7dm7_tQM)



### Gogoeta:

- Egitasmoaren ekintza diran hiru hitz nagusi aitatu (akonpainamendua, laguntasuna eta babes) eta babes)
- Zein eragilek ahalbideratu dau egitasmo hau?
- Ze zeinu itxaropentsu ikusten dozu ekimen honetan?
- Bideoaren azkenean azaltzen da zer gura daben gazte honeek. Zertan datoz bat euren eta zuen ametsak?
- Parte hartuko zeunke egitasmo honetan edo ahulezian dagozan pertsonen babes, akonpainamendua eta laguntasuna emoten deuten besteren batean?

Otoitza:

Dinamikarekin partekatu duguna gogoratu dugu eta gure otoitzera eramango dugu.

"Jauna, noiz ikusi zinduguzan goserik, eta emon geuntsun jaten, edota egarri, eta edaten emon? Noiz ikusi zinduguzan arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zinduguzan gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?". *Eta erregeak erantzungo deutse: "Bene-benetan dinotsuet: nire senide txikien honeetariko bati egun zeuntsoena neuri egin zeuntsen". (Mt. 25, 37-40)*

“Jauna, gura dozuz nire eskuak  
gaur beharrizanean dagozan behartsu  
eta gaixoei lagundu deiedan?  
Jauna, gaur nire eskuak eskaintzen deustudaz.  
Jauna, gura dozuz nire oinak  
gaur adiskidea behar dabenengana eroan naien?  
Jauna, gaur nire oinak eskaintzen deustudaz.  
Jauna, gura dozu nire ahotsa  
gaur zure maitasun-hitza behar dabenakaz  
alkarrizketan jardun daidan?  
Jauna, gaur nire ahotsa eskaintzen deustut.  
Jauna, gura dozu nire bihotza danak,  
inor kanpoan itzi barik, maitatu daidazan?  
Jauna, gaur nire bihotza eskaintzen deustut.



**ANEXO**

